

BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 234. alea - 2018ko azaroa

Bagoaz!!

EUSKARALDIA

11 EGUN EUSKARAZ



Debako elkarteak



sasoiko

ekodenda,
dietaetika,
belardenda

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia: tekarterapia (INDIVA)-drenaje linfatikoa -lesioak -...
- * Gimnasia hipopresiboak
- * Dietista
- * Podologia

Lersundi, 14 943 19 24 42 sasoi@hotmail.com

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak



Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

50 URTE

BURU - ZURI
Taberna

- Orartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauean tragoak

Lersundi Kalea, 23
Tel.: 943 191 034
20820 DEBA

k

kutxabank

Hazirik
ZURE EKODENDA

San Roke Kalea 6, DEBA
telf.: 943 02 99 63
e-mail: hazirik@gmail.com

Calbeton

JATETXEA

Agustín Larrañaga Elorza

Denboraldiko platera
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)

A D

ASESORIA DEBA C.B.

JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617
Eduarne: 669 895 619

asesoriadeba@asesoriadeba.com
www.asesoriadeba.com

HONDARTZA, 2 - BEHEA Tel.: 943 192 127
20820 DEBA (GIPUZKOA) Fax: 943 192 482

ITXAS GAIN
Taberna
ITXAS GAIN

Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576
20820 DEBA

ARKATZA
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA

URDAITEGIA
AITTOLA
HARATEGIA

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

Seven Clovers
Irish pub

943 191 295

AUKERA
INMOBILIARIA

www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95 

GENOVEVA
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818

Bar LOREA

"Orotariko tartak etxean eginak"

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095

AURKIBIDEA

04

GUTUNAK

“Musikaz eta kolorez beteko dugu Kolore Anitz Eguna”,
“Aldatzekua”...

06

ALBISTEAK

Hasierako onarpena eman diote Itziarko Toki Entitate Txikia aldatzeko proposamenari

08

EUSKARALDIA

Bagoaz, ari gara, bagara...
Euskaraldia bertan da!

12

ELKARRIZKETA

Bakarkako bigarren diskoa plazaratu du Jokin Lasak, “Hamaika gezur” izenburupean

14

ALBISTEAK

300 bat lagun elkartu ziren Kalean Kantuz-en lehenbiziko topaketan



BERRIKETAN

Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba
Telefonoa: 943 19 13 83
Aldizkariaren e-maila:
berriketan@zuhatza.com
Elkartearen e-maila:
koordinatzailea@zuhatza.com

ARGITARATZAILEA

Zuhatza
euskarako elkarteak deba

LAGUNTZAILEAK



Debako Udala



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikarako Salburuordetza) druz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkarteak. Deba.

Koordinatzailea: Izaro Aulestiarte

Hizkuntza ardura: Lukax eta Nagore Dorronsoro, Izaro Aulestiarte

Azaleko irudia: Erredakzio taldea

Publizitatea: Joseba Escudero eta Koldo Aperribai

Logotipoaren diseinua: Iñaki Elosua

Maketazioa: Leire Rubio

Tirada: 1.400 ale

Maiztasuna: Hilabetekaria

Inprimategia: Euskalinpri

Lege gordailua: SS-246-2009

ISSN 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: berriketan@zuhatza.com edo koordinatzailea@zuhatza.com.

Musikaz eta kolorez beteko dugu Kolore Anitz Eguna

Aurten Santa Zeziliaren doinuekin batera dator Kolore Anitz Eguna, azaroaren 24an (larunbata), hain zuzen ere. Beraz, musikaz ez ezik, kolorez ere beteko da herria egun horretan. Eguraldiak laguntzen badu, konbinazio aparta iruditzen zaigu eta egun polita izan daiteke gure herriarentzat.

Eguerdi partean, jolas handi bat egingo dugu, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzendua. Gurasoak ere gonbidatuta zaudete jolasen parte hartzera, batez ere txikienekin jolas egin dezazuen. Herrian zehar ikusiko gaituzue atzera eta aurrera.

Jolasa amaitzean, Kolore Anitz taldean parte hartu duten begirale guztiei bazkaria egiteko gonbidapena luzatu diegu. Urtetxo batzuk joan dira hasi ginenetik eta jende asko pasa da dagoeneko taldetik. Polita iruditzen zaigu guztiekin elkartu eta oroitzapenak elkarrekin konpartitzea. Tripa ongi beterik, poteo musikatua egingo dugu eta, nola ez, guztiok begirale izanik, jolasak ere egingo ditugu gure artean.

Aisialdiaz gozatzeko mila arrazoi eta mila aukera!

Laster arte!

Kolore Anitz Aisialdi Taldea



Olentzero eta Mari Domingiren etorrera prestatzeko batzar irekia

Olentzero eta Mari Domingiren etorrera, ohi bezala, abenduaren 24an (astelehena) izango da, eguerdi partean. Uste baino gertuago dago hitzordua eta, hortaz jabetuta, guztia txukun antolatzeko helburuz egingo dugun bilera irekira gonbidatu nahi zaituztegu.

Batzarra datorren azaroaren 26an (astelehena) egingo da, 18:00etan, Zuhatza Euskara Elkartearen bulegoan. Ekitaldia ahalik eta irekiena izan dadin, prestatetean parte hartu nahi duzuen herritar guzti-guztiak zaudete bilerara gonbidatuta; guztion ekarpenak izango

dira aberasgarri. Beraz, badakizue, animatu, etorri bilerara eta zabaldu deialdia zuen inguruan!

Olentzero eta Mari Domingiren etorrera prestatzeko lantaldea

Gabonetako denda zabalduko da, Bidezko Merkataritza bultzatzeko

Gabon garaia gerturatzen ari den honetan, Bidezko Merkataritza denda zabalduko duela jakinarazi nahi du Debako Andre Maria Parrokiako Kooperazio Taldeak. Iaz bezalaxe, denda hainbat herrialdetako produktuak jarriko dira salgai: Ekuador, Nikaragua, Peru, Mexiko, Filipinak...

Lersundi kalean, 31. zenbakian,

egongo da denda, abenduaren 1etik (larunbata) 2019ko urtarrilaren 6ra bitartean. Astegunetan arratsaldean egongo da irekita, 17:00etatik 20:00etara; larunbatetan eta jaiegunetan, berriz, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

Debako Andre Maria Parrokiako Kooperazio Taldea



Aldatzekua

Lehenagoko Lazkano Jauregia, Udaletxeari itsatsia dagoena, Aldatzekua bihurtu zen 1845ean, Gasteiz-Bilbo-Donostiako bidaiarien ostatu bilakatuz.

Trena etorri aurretik, erdi mailako bidaiak eta bidaiak luzeak zalgurdietan egiten zituen ordaindu zezakeen jendeak; atsedeen gunetako bat zen Deba eta behar-beharrezko geltoki bidaiari nahiz zaldientzat. Aldatzekua izan zen bidaiarien atsedeen-ostatu, Aldatz-goi zaldiena, eta Zalburdin artatzen eta ferratzen zituzten zaldiak.

Ostatu zen garaian, etxeak sukaldea eta taberna zeuzkan behe solairuan, lehenengo solairuan jantokia eta bigarrenean bidaiarien logelak.

Trena, Bilbo-Deba (1893an) eta Deba-Donostia (1901ean), egiten hasi zenetik aurrera, bidaiariak Deban geratu gabe jarraitzen zuten bidean; behe-barrua eta lehenengo solairua taberna-jatetxe bihurtu ziren, eta, bigarrena,

etxejabeen bizileku.

II. Errepublikara garaietan, lehenengo solairua Batzoki bihurtu zen, Errepublikarren Bilgune eta Julian Tabernari, oraingo Buru Zuri zenari,



kompetentzia eginez. Debako beteranoren artean inork ez du gogoan Batzokia Aldatzekuan egon zenik; Urbietaren etxean, oraingo Lersundi 6an, egon zela uste dute denek. *EL DIA*-tik jasoa geneukan informazioa zalantzan geratu zaigu.

Zalantza hori argitzeko, Sabino Arana Fundazioan aholkua eskatu dugu eta garai hartako EAJren *EUZKADI* egunkariak aztertu; baina, ez dugu aurkitu Debako Batzokia non kokatua zegoen adierazten digun informaziorik. Beraz, gure zalantzarekin jarraitzen badugu ere, sinesgarriagoa zaigu hamar bat debarrek esan digutena orduko *El Día* egunkariak ekarri zuena baino.

1936-1939ko gerra amaitzean, behe-barrua Arriola Denda bilakatu zen eta, urte batzuk geroago, lehenengo solairua, bizileku. Jabeek, jubilatuta eta denda itxi zutenean, Osasun Zentro, pintura eta altzairu erakustoki eta abar izatera pasa zen, Laboral Kutxak, oraingo jabeak, eskuratu zuen arte.

Aurten, 2018an, auzokideok plaka-oroigarri bat ipini diogu, historia txiki hau Debako historian txertatua geratzen.

Jose Luis Albizu



"El Día" egunkariak 1930eko abenduaren 14an kaleratutako artikulua.



Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

LENTZERIA

Azoka

MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA

Hasierako onarpena eman diote Itziarko Toki Entitate Txikia aldatzeko proposamenari



Ander Salagi

Gai bakarra izan zen eztabaidagai azaroaren 15ean Deban egindako ezohiko bilkuran. Izenburu hau zekarren deialdiak: “Itziarko Toki Entitate Txikiaren aldatzeko hasierako onarpena, hala badagokio, Gipuzkoako Udal Barrutiak erregulatzeko, martxoaren 17ko 2/2003 Foru Arauaren III. tituluarekin bat”. Aurrera egingo du, bada, Debarren Ahotsak eta EAJ alderdiak osatutako udal gobernuak aurkeztu duen proposamenak. Aldeko zortzi botorekin (Debarren Ahotsako bost eta EAJko hiru) onartu zen txostena plenoan; kontra bozkatu zuten EH Bilduko zinegotziek.

Udaletxeko batzar aretoa bete zuten herritarrek, ikusmin handiarekin. Debako gaur egungo udal ordezkariak ez ezik,

Itziarko auzo alkate Zigor Aizpuruak ere hartu zuen hitza bertaratutakoen aurrean.

2014ko ekainean, aldeko zortzi botoren gehiengoarekin eta kontrako bost botorekin, onartu zuen Debako Udalak Itziarko Toki Entitate Txikia eratzeko. Baina, orain onartu berri den proposamenak izaera ezberdineko aldatzeko suposatuko ditu azken urteotan martxan egon den auzo udalean.

Lurraldetasunari dagokio aldatzea nabarmenena. Udal gobernuak aurkeztutako txostenean azaltzen denez, entitate txikiaren mugen zati bat aldatu nahi dute, eta, horren ondorioz, industrialdea nahiz haren hiri-lurzorua eta Egiako eta Arriolako auzoak udalerriko erregimen komuneko lurraldean sartuko lirakeke.

Ezohiko plenoan onartutakoaren harira, beraz, Itziarko industrialdea, Egia eta Arriola auzoak egungo entitate txikiaren lurraldetik kanpo geratuko lirakeke. Lurralde aldatzeko gain, eskumenak berrikustea erabaki du udal gobernuak eta, ondorioz, baita aurrekontua ere. 30 bat orrialde dauzka txostenak guztira.

Proposamenari baietza eman diote azaroko ezohiko bilkuran. Legeak agindu bezala, hurrengo urratsa proiektua jendaurrean aurkeztea izango da, hala iritziz gero, alegazioak aurkezteko aukera izan dadin.



Debako udal gobernuak interes elektoral gisa erabili nahi du Itziar

Gehiengoa ezarritik, auzo udal “modifikazio” proposamen berria aurrera atera du Debako udal gobernuak azaroaren 15ean egindako ezohiko plenoan. Iruditzen zaigu, ordea, onartutako txostenaren funtsa ez dela Itziarko Auzo Udalaren “modifikazio” soil bat; herritarrok, legedia betetz eta prozesu eratzaile baten ondoren, eraikitako instituzio legitimoaren murrizketa larria baizik. Beste auzo udal bat proposatzen du, udal gobernuko alderdien artean ezkutuan moldatua, baina ez auzotarrek eskatua, ezta auzotarrek adostua ere.

Gizarte zibilaren eskaerak eta arazoak bideratzea da alderdi politikoen zeregina. Itziarko Auzo Udala hau auzotarren gehiengo zabalaren erreklamaziotik sortu zen, hor daude orain dela lau urteko galdeketa emaitzak: %72ko parte-hartzea, %96ko aldeko bozkek.

Proposamen honek ez du jendartearen parte-hartzerik eta eztabaida publikorik izan. Arriola eta Egia auzoak auzo udal antolatetik kanpo jarri nahi ditu, Arriola

eta Egiako auzotarrak informatu ere egin gabe. Hauteskundeak datoz eta Deba hiriguneko biztanleen botoak dituzte helburu alderdi politikoei. Ez da bidezkoa beste behin auzo udala tresna elektoral gisa erabiltzea, eta kalean jadanik baretua den ikamika berriro piztea.

Debako gehiengoaren desadostasuna jartzen da argudiotzat. Baina zein oinarri arrazionalerantz dio desadostasun horrek? Ez ote dira oraindik lehen piztutako beldur eta gaizki ulertuak? Ia lau urte igaro direnean, bistakoa da Itziarko Auzo Udalak ez diola inolako kalterik eragiten Deba udalerrinari. Oso bestela, harreman instituzionalak zabaldu eta baliabide osagarriak erakartzeko tresna baliagarria dela erakutsi du.

Era berean, ez da lurralde zatiketarik. Nahiz eta lurraldetasuna ikur gisa goratu den hasieratik, toki entitate txikia ez da eredu territorial bat. Zerbitzu eta eskuduntza batzuk kudeatzen ditu, antzekoak eta elkarren ondokoak diren auzoetako biztan-


leengan. Hauetariko hainbat zerbitzu lehendik datozkigu gainera. Inori bururatzeko zaio esatea, adibidez, Itziarko anbulatorioaren barrutiak lurraldea zatitzen duela?

Auzotarrek Itziarko Auzo Udalarekiko atxikipen argia erakutsi dute denbora honetan. Debako udal gobernuko kideek ere iritzi positiboa adierazi dute behin baino gehiagotan. Jorrotutako bidearekiko jarrera baikorra da, ilusioa eta parte-hartzea ekarri ditu eta kohesio-soziala bultzatu du. Elkarbizitza tresna baliagarria dela erakutsi du. Itziarrentzat bezala, Debarentzat ere bideragarria dela garbi geratu da.

Orain Debako udal gobernuak zuzenean interbenitu nahi du Itziarko Auzo Udala, txosten berriak proposatzen duenaren bideetik. Prozesu herritarraz eraikitako gobernantza irekia eta batzar antolaketa zapuztea dakar horrek, nahiz eta “modifikazio” tekniko baten izenean nahi diguten justifikatu zentzugabekeria hau.

Itziarko Auzo Udalaren Talde Eragilea

Azaroaren 25aren bueltan antolatutako ekimenetan parte hartzeko deia egin dute



Azaroaren 25a Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela eta, egun horren bueltan ekimen ezberdinak antolatu ditu aurten ere Debako Udaleko Berdintasun Sailak. Urtero bezala, hitzorduekin bat egiteko deialdia egin die herritarrei.

Azaroaren 23an (ostirala) emango zaio hasiera aurtengo egitarauari. Batetik, gazteei zuzendutako ikus-entzunezko Beldur Barik lehiaketari dagozkion sariak banatuko dituzte arratsaldean (18:30ean), Agirre jauregian.

Bestetik, gauean, lau film labur proiektatuko dituzte Kultur Elkarteak: "Home", "Beti bezperako koplak", "Sunken Plum (Ciruela de agua dulce)" eta "La rara de la familia". Emanaldia 22:00etan hasiko da.

Azaroaren 25ean (igandea) ohiko agerraldia deitu dute Foruen plazan (13:00etan). Eta abenduaren 16rako (igandea) dago aurreikusita aurtengo egitarauaren baitan antolatutako azken hitzordua. Berdintasunaren gaia landuz betiere, hurrei zuzenduriko ipuin kontaketak izango dira Agirre jauregiko ispiluen gelan, Debako kontalarien eskutik. 17:00etan izango da lehen saioa, 3-7 urte bitartekoentzat; eta, ordubete beranduago bigarrena, 7-12 urte bitartekoentzat.

"Transexualitatea haur eta gazteen artean" hitzaldia eman zuen Iñaki Goñi Garateak



Itziar Arana

Joan den azaroaren 7an, 15 lagun elkartu ziren Agirre jauregian, Debako Udaleko Berdintasun Sailak antolatutako "Transexualitatea haur eta gazteen artean" izenburuko hitzaldia entzuterako. Hizlaria Iñaki Goñi Garateak izan zen. Sexologoa eta Haur Hezkuntzako irakaslea da; Nafarroan aritzen da batez ere lanean, Chrysallis EHko kolaboratzailea eta Madrilen Alcalako unibertsitate-

ko ikerketa lantaldeko kidea da.

Hitzaldi filosofikoa izan zen. Bertaraturakoei hausnarketarako gunea eskaini zien transexualitate eta sexualitate ideia/kontzeptuetatik abiatu eta, Magnuse Hirschfeld intersexualitatearen teoria aipatuz, munduan egoteko modu maskulino/femeninoaz pentsaraziz. Hurbildutako jendearen interesa eta parte-hartzea nabaria izan zen.



REXU ARAKISTAIN

Baserriko gorabeherak

Gogoratzen zarete... gehienbat nire adinekoak?

Esnea: Behi esnea; zenbat gauza goxo egiten genituen? esne-gain gordinarekin chantilly-a eta egositakoarekin mantekila, arroz-esnea, flanak, kroketak egiteko bexamela; o! ze ona! mundiala! Orain sendagileak "fuera-fuera koipea" dio!

Arrautzak: Lehen ez zuten letrarik, ezta zenbakirik ere, baina... bazituzten euren arrasto dotoreak, "zirinenak". Orain, berriz, denek letra pila bat, kame-retan hilabeteak eta "huevina" hori, zer da? Edo zer du?

Sagarrak: Lehen xomorrotxoak barruan zituztela goxo eta koloretsu, "sano asko", bai horixe! Orain, berriz, denek dakite azal eta guzti jan behar direla, nola? Sei produktu kimiko eman ondoren, zazpigarrena doa, distira emateko, "argizaria balitz bezala". Ez usain, ez zapore, eta usteldu ere ez da egiten.

Barazkiak: Lehen patatak, tomateak, piperrak, letxugak, tipulak, porruak eta abar eta abar... Karea, simaurra, ura eta kitto! Orain, berriz, barazkiak eta fruta plastiko biren artean; ez dakigu zer ikusteko jaio garen!

Jolasak: Lehen, egun ofiziala igandea, beste egunetan lapurtutako ordu txikiak! Txori habien bila edo kilkerretan garaian garaikoa; kilkerra bere zuloxtotik ez bazen irteten, belartxoekin zirikatatu edo txiza egin, eta kanpora segidan.

Gizakia: Lehen kobetan bizi ziren, ahal zena jan, gaixotasunak tamainan eta aurrera. Orain, berriz, oraingo esnea, arrautzak, barazkiak, aire girotua, tresna pila bat etxeetan, denok korrika, igeri, surf, yoga, bizikleta, futbola eta zer ez!

Baina, gorputz osasuntsua eta buru indarra non eta nola?

EUSKARALDIA

6.000 debabarrendarrek eman dute izena dagoeneko

Mallabin hasi eta Mutrikura bitarte, dagoeneko 6.000 bizilagunek eman dute izena Euskaraldian. Horietatik, %70ak *ahobizi* moduan eman du izena eta %30ak, berriz, *belarriprest* moduan.



Ander Salegi

Era sendoan ari da garatzen Euskaraldia Debabarreneko zortzi herrietan: Mallabin, Ermuan, Eibarren, Soraluzen, Elgoibarren, Mendaron, Deban eta Mutrikun.

Antolatzaileak gustura daude ekimena debabarrendarren artean lortzen ari den zabalkundea ikusita: "Bailarako jendartean nabaritzen ari da Euskaraldia. Somatzen da ariketa egiteko ilusioa. Espero baino jende gehiagok dihardu izena ematen. Gainera, ikusten ari gara orain arte hurreratu ez den jende asko ari dela hurreratzen Euskaraldira. Behin eta berriz egiten dihardugu geure buruari galdera: 'hau ere bai?!'. Aniztasun handia ikusten ari gara izena ematen dihardutenean artean eta hori oso positiboa da".

Formakuntza eta txapak

Ekimenaren gaineko informazio eta aholkuak zabaltzeaz gain, hainbat herritan, berariazko formakuntza-saioak eskaini dizkiete izena eman duten herritarrei: Mendaron, Mallabin eta Mutrikun

"Biziprest" saioak burutu dituzte, UEMAK -Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak- eskainita; eta, Deban, Ermuan eta Soraluzen, *ahobizi* eta *belarriprestentzako* formakuntza-saioak egin dituzte. Horrekin batera, aholkuz eta azalpenez osatutako eskuorri eta ikusentzunezkoak ere zabaldu dituzte.

Bestalde, ekimenean erabili beharreko txapak (eta pegatinak) ere banatu dituzte azken asteotan.

Ekimen bereziak herriz herri

Euskaraldiak iraun bitartean, herriz herri hainbat ekimen antolatuko dituzte herritarrek elkartu eta beren arteko harremanak bultzatzeko helburuarekin: kantu bazkariak, mintzodromoak, "bazkarialdiak", horma-irudiak... eskaintza zabala eta anitza izango da aukeran.

Gurean, Deban, joan den azaroaren 11n egin zen ekitaldi jendetsua. Eguerdian, "Ttak" umorezko bakarrizketa saioa izan zen udaletxeko arkupeetan. Eta, ondoren, Euskaraldiarekin bat egin

duten herriko kultur eta kirol eragileen argazkiekin osatutako bi mural handi aurkeztu zituzten jendaurrean. Muraletako bat Zubeltzu parean zintzilikatuta dago; oihala zabaldu aurretik, Goizane Aizpuruak espresuki ekitaldirako sortu zuen testua irakurri zuten hainbat lagunek, eta beste herritar batzuek marrazki bat egin zuten ohelean. Bigarren oihala, berriz, Salgadoneko eskaparatean egongo da abenduaren 3ra arte. Herritarren aurrean zabaltzen zuten bitartean, Euskaraldiko kantuen letrak banatu zituzten eta guztiek elkarrekin abestu zuten -Alaitz Escudero eta Hector Aldalur musikariak aritu ziren gidari lanetan-.

Datozen egunotan ere izango dira hitzordu gehiago herrian. Abenduaren 2rako, adibidez, aurreikusita dago "Errementari" filma Kultur Elkartearen eskaintzea eta bestelakorik ere egingo da ziuurren azaroaren 23tik abenduaren 3ra.

Bagoaz, ari gara, bagara.... EUSKARALDIA BERTAN DA!

Hiru mintzatalde osatu ditugu herrian

Aurten ere, ikasturte berriari hasiera eman diogula aprobetxatuz, mintzalagunak hasi gara gure lehen hitzorduak antolatzen.

Azken ikasturtean bi talde izan genituen martxan eta, aurten, iazko bi talde horiez gain, hirugarren bat ere sortu dugu -goizez arituko dira talde berri horretan, ordutegi aldetik eskaintza zabalagoa eginez-.

Mintzataldeetan elkartzeko garen lagunok adin, ofizio, ohitura eta zaleztasun ezberdinak ditugu, baina denok daukagu nahi edo helburu bera; euskaraz gehiago hitz egin nahi dugu! Etxean, kalean, mendian, tabernan, familian edo lagunartean euskaraz hitz egin nahi dugu.

Horretarako, euskaraz hitz egiteko gaitasuna dugunok prest gaude gaitasun hori lantzen ari direnekin lagun artean eta giro jatorrean astean behin hitzordu bat egiteko.

Zuk ere, gurekin batera, euskaraz hitz egin nahi baduzu... **egin jauzi eta izan zaitez mintzalagun!**

Saioak astearteetan (17:45etik 18:45era), asteazkenetan (16:30etik 17:30era) eta ostiral goizetan (11:00etatik 12:00etara) burutuko ditugu. Beraz, animatzen baldin bazara, aukera daukazu izena emateko eta gurekin batera euskara praktikatzeko. Programan parte hartzeko gogoz bazaude edota informazio gehiago nahi izanez gero, animatu eta hurbildu lasai Zuhatza Euskara Elkartera!!

Taldeak osatuta dauden arren, hurrengo asteetan ere eman daiteke izena egitasmoan; ikasturtea aurrera joan ahala, mintzalagun izan nahi duten herritarrei lekua egingo zaie dagoeneko abian dauden taldeetan.

Zuhatza Euskara Elkarteko
Mintzalagunak



LEIRE AGIRREBEÑA

Ohiturak

Gizakiok egunerokotasunean izaten ditugun errutina edo ohiturak ugariak dira: kafea ordu berdinean hartzea, kotxea toki berdinean aparkatzea, denda batean erosketak egitea...; askotan bi aldiz pentsatu gabe egiten ditugun ekintzak izan ohi dira.

Eta hizkuntza ohiturak? Gehienetan, aurrean dugun pertsonaren arabera erabiltzen dugu hizkuntza.

Nik behintzat baditut inguruan euskara ulertzen dutela dakidan pertsonak, baina aldi berean hitz egiteko zailtasunak dituztenak. Ondorioz, gazteleraz hitz egiten diet. Beti egiten dugun galdera da... taldean gaudenean pertsona bategatik denok aldatu behar al dugu gure hitz egiteko ohitura? Askotan errespetu kontua dela pentsatzen dugu, ez badugu hizkuntza aldatzen pertsona hori baztertzeko ari garela uste baitugu.

Eta pertsona hori *belarriprest* bat baldin bada? Galdetu ahal diezaiokegu pertsona horri ea axola zaion gu gure hizkuntzan mintzatzea eta berak beste batean erantzutea?

Nik *ahobizi* rola hartuko dut azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean, eta espero dut horrekin pertsona batzuekiko ditudan hizkuntza ohiturak aldatzea, beraiek *belarriprest* izanik. Euskaraz bizi nahi badugu, ez delako nahikoa euskararen alde egotea.

Animatu denok EUSKARALDIAN ohitura berriak hartu eta horiekin gure herria euskaldunagoa egiten.

Gares eta Gasteiz lotuko ditu 21. Korrikak, euskararen alde "Klika" egiteko

AEK-k antolatuta, Euskal Herri osoa zeharkatuko du Korrikak 2019ko apirilaren 4tik 14ra bitartean. "Klika" da hautatutako leloa: euskararen aldeko hautua egiteko eta euskararen aroarekin bat egiteko deia. Txillardegiko omenduko dute edizio honetan, kultura, euskalgintzan, pentsamenduan... ekarri zuen aldaketa aintzat hartuta.

Korrikaren 21. edizioa izango da apirilekoa. Hamar egunez, Euskal Herri osoan barrena ibiliko da euskararen aldeko lasterketa, Gares abiapuntu eta Gasteiz helmug hartuta. Gasteizen bertan jakingo da Korrikaren sekreturik handienetako: lekuko barruan ehunka kilometro egin dituen mezuaren egilea.

Ekimenaren mamiari erreparatuta, Korrikaren arduradunek eman dituzte azalpenak: "Klika egitea aukera bat hartzea da, euskararen aukera hartzea". Hala dio 21. Korrikaren mezuak. Erabat lotua dago, beraz, Euskaraldiarekin eta ohitura aldaketarekin.

Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardegiko zenak ere *Klika* egin zuen bere garaian eta jarrera aldaketa bultzatu zuen kultura, euskalgintzan, pentsamenduan, politikan... Horrexegatik eta Txillardegiko euskara batuaren sorreran izan zuen funtsezko paperagatik erabaki dute AEK-k eta Korrikak Txillardegiko omentzea 21. edizio honetan.



Eskaintza zabala dakar Itziarko Auzo Udalak antolatutako udazken-neguko kultur egitarauak



Itziarko Periak XXV. edizioa bete du aurten. Uste baino eguraldi hobearrekin, jendetza bildu zen industrialdean.

Azaroaren 1eko Itziarko Periarekin hasi eta otsaileko Santa Ageda bezperako eskearekin amaituko da aurtengo udazken eta negurako prestatu den kultur zikloa. "Aurten ere *Barruan giro* izena jarri zaio egitarauari, egun hotzetako esaera gogora ekarriz, eta babeserako deia eginez", azaldu du Itziarko Auzo Udalak hedabideetara bideratutako prentsa oharrean. "Formatu txikiko ekintza desberdinak antolatuz partehartzea bultzatu eta elkarbizitza suspertzeko tresna baliagarria dela erakutsi du orain arteko jardunak -adierazi du-. Eragile desberdinen proposamenak jaso eta egitaraua bateratuz auzolanean jorratzea izan da hartutako bidea, auzo udalak bermatzen dituen tresnak eta ahalmenak baliatuz".

Otsailera bitartean, izaera ezberdine-

ko ekimenak egingo dira, hala nola hitzaldiak, tailerrak, ibilaldiak, musika kontzertuak, ipuin kontaketak eta antzerki saioak.

Egitarauaren baitan dator, adibidez, azaroaren 30ean (ostirala) egingo den jardunaldia. "Pinuaren gaitza eta basogintza" hizpide hartuta, ikuspegi ezberdinak partekatuko dituzte hizlariak. Aitor Onaindiak (Basoa Fundazioa), Josu Azpitartek (Baskegur) eta Aitziber Sarobek (Naturkon) parte hartuko dute saioan; 19:00etan izango da, Burugorri aretoan.

Abenduaren 14an (ostirala), musika kontzertua eskainiko dute Joseba Irazokik eta Beñat Achiaryk. Esperimentazioa oinarri hartuta, herri musikarentzat bide berriak proposatzen ditu bikoteak. "*Bas(h)oa*n lan harrigarri

bezain bizigarria ondua dute elkarren artean. Saio bitxia, ezberdina eta transgresorea dakarte Itziarra". Burugorri aretoan izango da emanaldia, 22:00etan (bost euro).



Abenduaren 24an, bestalde, mendi ibilaldia egingo da: Itziar-Erlo-Azpeitia. Itziarko plazatik abiatuko dira, 8:00etan.


"Giza eskubideen adierazpenaren 70. urteurrena" aldizkaria argitaratuko dute

Abenduaren 10ean betetzen da Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala onartu zeneko 70. urteurrena eta gai horrekin lotutako aldizkaria prestatu dute Jose Luis Albizuk, Nagore eta Lukax Dorronsorok (*Egiten taldea*).

Gai ezberdinak jorratzen dira euskaraz eta gaztelaniaz prestatutako argitalpenean. "Gure etxe txikian" izenburuko atalean, adibidez, Debabarrenako udal

gizarte zerbitzuen mapa (proposamen teknikoa. Iraila 2018) eta indarkeria matxista Euskadin (iazko txostena) hartu dituzte hizpide, besteak beste. "Gure etxe handian" delako atalean, berriz, errefuxiatuak, ekonomia, klima aldaketa, gerra eta errepresioarekin lotutako kontuak batu dituzte.

Udaletxeko arkupeetan jarriko dute salgai aldizkaria, abenduan.



Egurra ta Kittok finantzaketa kolektiboa abiatu du 10. urtemugako diskoa kaleratzeko

Bere hamargarren urteurrena ospatzeko, bosgarren diskoa prestatzen ari da Egurra Ta Kitto talde gipuzkoarra -Iker Vela debarra da taldekideetako bat-, eta diskoa kale-razteak dakartzan kostuei aurre egiteko crowdfunding kanpaina abiatu du, herritarrei laguntza eskatuz.

Durangoko Azokan ikusiko du argia diskoak. Disko berezia izango da, hamar kanta berri eta beste hainbat abesti barneratuko dituelako, denera 18 abesti bilduz. "Urte haue- tan taldearen alboan egon diren entzuleei eskertzeko lana izango da, bai hasieratik egon direnei eta baita bidean batu diren horiei ere".

Hilabete amaieran amaituko da crowdfundinga eta kanpainan lortutako ekarpen edo laguntza ekonomikoak hainbat gasturi aurre egiteko erabiliko ditu taldeak: diskoaren grabaketa, masterizazioa, ekoizpena, promozioa, bideoklipa... Finantzazioa lortzeko, Itsulapikoak eskaintzen duen aukera erabili nahi du Egurra



Ta Kittok. "Horrela, aiez ale denon artean eraikitako proiektu bat sortu nahi dugu, taldearen jarraitzaileak ere proiektuaren parte sentituz eta laguntzaren truke hainbat sari esku- ratuko dituztelarik".

Ekarpena egiteagatik, taldearen diskoa eta kamisetak eskuratu ahal izango dira. Informazio gehiagorako edota taldearen abesti berrien *teaser- rrak* entzuteko, jo ondoko loturara: www.itsulapikoa.eus/eu/proiektuak/egurra-ta-kitto-5-diska.

Animadeba Gortina Lehiaketa eta Tene Mujika Beka deialdiak egin ditu Udalak



Debako Udalak Animadeba Gortina Lehiaketaren oinarriak argitaratu ditu; epaimahaiak saritzen duen lana 2019ko Animadeba animazio zinema jaialdia iragartzeko erabiliko da.

IX. edizioa du aurten lehiaketak eta deialdia animazio ikasleei zuzenduta dago. Parte-hartzaileak unibertsitatean edota animazio eskolaren batean matrikulatuta egon beharko dira. Lanak aurkezteko epea abenduaren 17an amaituko da eta 500

euroko saria dago jokoan.

Edozein animazio teknika onartuko da sariketan eta gaia librea izango da; dena den, gortina guztiek derri- gor eraman beharko dute Animadeba 2019ko logoa. Informazio gehiagorako: www.deba.eus eta www.animadeba.com.

Bestalde, abian jarraitzen du Tene Mujika Bekaren XIII. deialdiak. Euskal Herriko historia hurbilaren ezagutza zabaltzeko eta gure literatura aberasteko asmoz, Udalak egin du deialdia, Elkar argitaletxearen laguntzarekin. 6.000 euroko diru- laguntza emango diote irabazleari.

Abenduaren 10ean amaitzen da proiektuak aurkezteko epea. Oinarriak ikusteko eta informazio gehiagorako: www.deba.eus.



MATTIN URBIETA

Koalarik? Ez, eskerrik asko

Banindoa oinez kotxerantz, tantarik ba ote zetorren gora begira. Bazetozen beherantz, dantzari, gorritzen hasitako bi geranio orri. "Hara... iritsi zaie hauei ere udazkena!". Ez dira bakarrak, dirudienez pinuari ere iritsi zaio, gorri baitaude asko Iratiko pagoa- k bailiran. Udazkena iritsi zaio, bai, pinuari, baitirudi etorkizunean beste zuhaitzen batzuek beteko dituztela gure mendi inguruak. Buruhauste ederra basoginentzat.

Gure etxeko sarreran, ataria zehar- katzeaz bat, bazen margolan eder bat pareko horman. Urasandi baserria ageri zen bertan, Deba ibaiaren gainean. Gaztegia naiz ni baserria zutik eza- gut nezan; zenbait ez zarete oroitu- to agian; gazteenek akaso inoiz ez zenu- ten entzungo honen inguruan. Duela ia 30 urte, 1989an, sute batek kiskali zuen gure Urasandi, inguruko mendiarekin batera. Soilik Gipuzkoan 6.000 hektare- atik gora erre ziren urte hartan, gure udalerraren hedadura baino gehiago. Pinuaren ordeztiko posibleen artean, halabeharrez eukaliptoak datorrit gogora, eta honi lotutako suteak Galizian. "Eukaliptoak Austral-herrira" irakurri dut nonbait.

Eukalipto eta koalak gogoan, auto- pistatik irten eta Itziartik behera, Debara iristerako jada ilunabarrak hartu ditu inguruak. Autoaren argiei segika, bidea garbi dela ikusi dut: ez zuhaitzik, ez surik bidean; ezta bide bazterretan gainezka pilatzen ziren kotxeak ere. Eraman ditu hauek ere udazkeneko haize sarkorrak, enarak bezala. Txorien truke, poztasunik ere ekarri digu udazkenak. Ongi etorri, Paule! Zorionak, Andrea eta Xabi!



JOKIN LASA abeslaria

“Noizbait hasitako lana bukatutzat eman ondoren, sentsazio atsegin batekin geratu naiz”

“Hamaika gezur” izenburupean ikusi du argia Jokin Lasaren (Lazkao, 1954) disko berriak. Bakarkako bigarren lana du hau eta Andoaingo Garate estudioan grabatu du. Diseinu berezi batekin eta hainbat kolaboratzailearen ekarpenekin hornitu du diskoa eta emaitzarekin oro har gustura geratu dela dio kantariak. Sortze prozesua amaitutzat eman ostean, orain diskoa ezagutzera emateko ordua da; eta helburu horrekin elkarrizketatu dugu, hain justu, *Berriketan-en*.

Dagoeneko eskuen artean daukazu zure disko berria. Zer sentsazio, Jokin? Gustura emaitzarekin?

Gustura bai, orokorrean gustura; gauza batzuekin beste batzuekin baino gusturago, normala denez, baina noizbait hasitako lana bukatutzat eman ondoren –erraza ez dena, bide batez esanda, nire kasuan behintzat–, esan dezaket halako sentsazio atsegin batekin geratu naizela.

Azalduiguzu hitz gutxitan zelakoa den diskoa. Has gaitezen izenburutik. Zergatik “Hamaika gezur”?

Aurreko diskoari *ZORTZIKO TXIKI BAT* jarri nion izena, zortzi kanta zituelako eta letrak egiterakoan bertsogintzan erabiltzen den zortziko txikiaren egituratik abiatu nintzelako, nahiz eta gero batzuek beste forma bat hartu zuten. Oraingoan hamaika kanta nituen eta pentsatu nuen aurrekoaren jarraipen gisa, izenburuan bederen, zenbaki bat agertu behar zela eta hamaika zenbakiak esanahi bikoitza

duenez, primeran zetorkidan gezur hitzarekin elkartuz –zeina kantu bat baino gehiagoko gaia den– nahi nuena adierazteko.

“Une, egoera eta aldarte bakoitzean barrutik intuizioz irten zaidan musika egin dut, ez bainaiz musikari ‘ikasia’”

Eta barruan, zer dakar zure lanak? Zeini zuzenduta dago lana eta zer aurkituko du bertan entzuleak?

Nori zuzendua dagoen? Ba, entzun nahi duen orori, noski, eta nahiko nuke ahalik eta entzule gehien izatea. Tematikari dagokionez, hemen eta orain bizi dugun garai kezagarriaren ispilu izaten saiatu naiz batetik, esanahi argi eta zuzeneko letrak eginez, eta literatura apur bat egiten, bestetik (literatura ere, fikzioa den neurrian, gezurra

baita). Hori letrei dagokionez. Eta musikari dagokionez, berriz, zer esan... une, egoera eta aldarte bakoitzean barrutik intuizioz irten zaidana, ez bainaiz musikari “ikasia”, esan dezagun.

“Ipuinak ez dira benetan gertatzen. Ez bururik hautsi egiantzik bilatzen”...; “Horrela laburbiltzen da/ Zure pelikula/ Ez zara berriz gazte/ Izanen sekula/ Zahartzen ari zara/ Jakin eza zula”...; Gezurren aurrean, egia biribilak?

Bai, ironia erabiltzea gustuko dut. Eta gure bizitzan, orain, lehen eta etorkizunean ere bai segur –historia behin eta berriz errepikatu egiten dela ikusi besterik ez baitago– ezinbestekoa dela uste dut, gainera, bestela, auskalo non amaituko genukeen.

Interneten irakurri berri dugu: **“Ohikoa duen eran, musika melodiotzua, letra sozialki konprometitua eta ahots bikainarekin landu ditu abestiak Lasak”**. Zer deritzozu?

Zuzena al da?

Hala badiote, hala izango da. Esan duenak esan duela, loreak iruditzen zaizkit denak, eta lore guztiak ongi etorriak izan ohi dira. Baina, beno, badakizu, zerraldoaren aurrean ere hitz politikak esaten dira.

Diskoko kantak sortzeko prozesua zelakoa izan da?

Neketsua, oso neketsua ez esateagatik. Noiz edo noiz dena bertan behera uzteko gogoia ere izan dut, ez pentsa. Baina, lortu dut, azkenean, nola edo hala amaitzea eta, alde horretatik begiraturaz gero, atsegina ere izan dela esan daiteke.

Eta grabazioa? Zer moduz Andoaingo Garate estudioan?

Grabazioa sortze prozesuari erabat loturik egon da. Hamaika kanta hauetarik gehienek bertsio bat baino gehiago izan dute, hiru ere bai batzuek, eta bertsio bakoitza grabatu egin da. Horregatik luzatu da hainbeste denboran, azken bertsio behin betiko eta ase-bete gaituen hori lortu dugun arte.

Ez da Kaki Arkarazorekin lan egiten duzun lehen aldia. Haren gidaritzapean egin da grabazioa, eta gitarrarekin ere kolaboratzen du, gainera, diskoan. Konfiantza handia duzu harengan?

Bai. Kaki ume-umetatik dut ezagun, herritar, auzokide eta gero, jakina denez, JOKIN ETA JOSUren garaietan, oraindik nerabe zela, gurekin hasi eta ibili baitzen gitarrista eta soinu teknikari gisa. Harrezkero, Kaki euskal musikaren munduan zer izan den, bai gitarrista bai soinu teknikari gisa, ez dago esan beharrik. Berak, musikari eta teknikari bezala egiten duen ekarpenaz gain, nik ez dudana beste ikuspuntu bat gehitzen dio nire sormen prozesuari.

Arkarazoz gain, beste hainbat kolaboratzaile izan dituzu: Karlos Aranzegi (baterian), Adrian Elustondo (baxuan), Gorka Agirrezabala (tronpetan), Kimu taldea (txalapartan), Nahia Eguskizaga eta Joseba Sarrionandia (errezitazioan). Ez dira nolanhiko ekarpenak, ezta?

Bai, musikari bikainak gehienak, talde garrantzitsuetan ibili eta dabilzianak, Karlos eta Adrian batik bat (Bide Ertzean, Mikel Erentxun, Kauta...). Horrelako jendearekin lan egitea oso erraza da, berehala sartzen dira marka-

tzen diezun arrastoan eta lauzpabost entsegu egin ondoren, grabatzeko prest. Baina nik Gorkari eta Nahiari eman nahi dizkiet bereziki eskerrak, eskaintako laguntzagatik. Bene-benetan, mila-mila esker bioi. Eta, nola ez, baita Sarriri eta kredituetan ageri ez den Matxitxari ere.

“Zuzeneko emanaldietarako prestatzen ari naiz. Orain diskoa ezagutzera emateko tenorea da”

Azala, berriz, Maider Aldasorok diseinatua...

Joxelux bere aitarekin harremana dudana arren, bera ez nuen ezagutzen. Halako batean, marraztu egiten zuela heldu zen nire belarrietara. Eta hala, bere lan batzuk ikusi, eta diskoaren diseinua egitea proposatu nion. Ez nuela nahi ohiko formatu estandarra izan zedin. Hori izan zen jarri nion baldintza bakarra. Ez zedila barrukoaren edukiontzi soil izan. Izan zedila artelan bat bere baitan. Eta ederra geratu dela uste dut. Ez da hala?

Interneten jarri dituzu entzungai zure kantak (badok.eus eta jokinlasa.bandcamp.com webguneetan). Beharrezkoa

da sarean ere presente egotea?

Hala dirudi. Ni gauza horietaz apenar arduratu naizen orain arte, gainditu egiten nautelako besteak beste eta, gainera, denbora asko kentzen didatelako benetan gogoko dudana sormen lanean aritzeko. Baina, egokitu egin behar garai berrietara. Zer erremedio.

Salgai dago jadanik diskoa?

Formatu digitalean bai, nire bandcampen; formatu fisikoan ere salgai egongo da Durangoko Azokan Musika Zuzenean-en standean eta ohiko salmenta puntuetan.

Zuzeneko emanaldietarako prest, Jokin?

Prestatzen ari naiz. Orain, diskoa ezagutzera emateko tenorea da. Espero dut laster dei andana jasotzea handik eta hemendik (*kar-kar*). Zenbait tokitatik deitu didate, baina lekuaren arabera erabaki beharra dago zein formatu eraman zuzeneko emanaldietara. Leku txikietan bakarrik edo beste musikari batekin joko nuke, baina areto handiagoetara -eta jaso ditut deiak dagoeneko- atzean talde bat dudala joan beharra dago eta horrek prestatzeko denbora eskatzen du.

Beste zerbait erantsi nahiko zenuke?

Bai, eskerrak eman zuei, *Berriketan*-i eta Zuhatzari. Eta ea herrian luze gabe diskoaren aurkezpena egiteko parada dudana.

Izaro Aulestiarte

“Hamaika gezur”

Formatua: CD
Azala: Maider Aldasoro


PARTAIDEAK:

Jokin Lasa, ahotsa, gitarra akustikoa, harmonika
Kaki Arkarazo, gitarra akustikoa eta elektrikoa
Karlos Aranzegi, bateria, perkusioa
Adrian Elustondo, baxua
Gorka Agirrezabala, tronpeteta, kornuak
Kimu taldea (Sergio Lamuedra, Julen Laskibar), txalaparta
Nahia Eguskizaga, errezitazioa
Joseba Sarrionandia, errezitazioa

GRABAZIOA

Garate estudioa (Andoain, Gipuzkoa)

SOINU TEKNIKARIA ETA MOLDAKETAK
Kaki Arkarazo





300 bat lagun elkartu ginen Kalean Kantuz-en lehen topaketan

Joan den urriaren 28an ospatu genuen Kalean Kantuz-en lehenbiziko topaketa eta 300 bat lagun bildu ginen hitzorduan. Donostia, Bidebieta, Zarautz, Eibar, Elgeta, Elgoibar, Itziar, Arrasate eta beste hainbat lekutatik etorritako jendea elkartu ginen, baita bertokoak ere, guztiak elkarrekin Debako kaleak alaitzeko asmoz.

Kalez kale ibili ginen, kantuz kantu. Txistuak, gitarrak, akordeoiak, panderoa, flauta eta beste musika tresna batzuen soinuaz lagundurik, guztiok batera aritu ginen goiz partean herriko kale eta txoko guztiak alaituz. Eguerdian, berriz, bazkaria egin genuen Aldats pilotalekuan, giro ederrean.

Debako Kalean Kantuz taldearen izenean, eskerrak eman nahi dizkizuegu egun zoragarri horretan Debara hurbildu eta gure lehenengo topaketan parte hartu zenuten herritar guztioi.

Bide batez, gurekin abestera etortzeko gonbidapena ere luzatu nahi dizuegu beste behin. Entseguak astelehenetan egingen ditugu, arratsaldeko 20:00etan, Debako Musika Eskolan. Animatu gurekin abestera!

Debako Kalean Kantuz Taldea



Debako eta Itziarko 25 bat lagun Behobia-Donostian

24.000tik gora lagunek osatu zuten azaroaren 11n (igandea) jokaturako Behobia-Donostia lasterketa ezaguna. Probaren 54. edizioa izan den honetan, Debako eta Itziarko hogeita bost bat lagunek parte hartu zuten, horietako lau emakumeak. 20 kilometroko ibilbidea osatu behar izan zuten.

Ibon Arrizabalaga beteranoa izan zen azkarrena gure ordezkarien artean (1:24:42 denbora egin zuen), eta emakumezkoetan, berriz, Naia Rodriguez (1:42:30), beteranoen kategorian hura ere. Sailkapen orokorra ikusteko aukera dago interneten: www.behobia-sansebastian.com.



Historiaurreari buruzko jardunaldiak, lehenbizikoz



Aurten, lehenbizikoz, historiaurreari buruzko jardunaldiak antolatu dira Deban, Paleolito garaia ardatz hartuta. Hitzaldiak, erakusketa, tailerrak, irteera gidatuak, zinema emanaldiak... izan dira aukeran, besteak beste, Kultur Elkartek eta Debanaturak prestatutako egitarauaren baitan. Udalak babestu du ekimena eta Aranzadi Zientzia Elkartea, Burdin Kurutz Mendi Taldea eta Geoparkearen laguntza ere izan dute antolatzaileek.

“Praileaitz I kobazuloaren azken aurkikuntzak” izenburupean, Aranzadi Zientzia Elkarteko Xabier Peñalver eta Sonia San Jose arkeologoen eman zieten hasiera topaketei, hilaren 8an. Bete-bete egon zen Agirre jauregiko ispi-luengela eta bertaratutakoek interesez jarraitu



zituzten adituen azalpenak. Bi arkeologoen gidaritzapean, gainera, bi egun beranduago txangoa egin zen Praileaitz kobazuloaren sarrera eta inguruetaraino, “Euskal Herriko Paleolitoko Epizentroa” ezagutzeko.

Egitarauaren baitan aipatu behar, era berean, “Debabarreneko lehen biztanleak” izeneko erakusketa. Eskualdean eta Geoparkean Goi Paleolito garaia dagokionez, ondare arkeologikoaren aurkikuntza interesgarrietako informazioa eskaini du erakusketak. Debabarreneko haitzuloetan aurkitutako aztarna garrantzitsuen erreplikak ere egon dira ikusgai.

Beste hamaika ekimen ere izan dira topaketen baitan, hala nola paleo-taile-



rrak, “Historiaurreko olimpiadak/paleoabenturak”, Ekainberrira bisita edota Juan Mari Arruabarrenaren (Munibe Arkeologia taldea) “Arkeo-esploratzaileen abenturak Debabarrenetik” hitzaldia.

Hilaren 24an paleo-koben mendi martxa egingo da eta jardunaldiak hilaren 25ean (igandea) bukatuko dira. 16:30ean haurrentzako zine proiektzioak izango dira: “Bazen behin gizakia” eta “Duela 13 mila urte”. 18:00etan, berriz, helduentzako saioa izango da; “El auténtico neanderthal” filma eskainiko dute, Joseba Rios arkeologoaren aurkezpen eta hizketaldiarekin. 19:00etan azken bisita gidatua egingo da “Debabarreneko lehen biztanleak” erakusketara, baita “Sua” tailerra ere.

Deba eta Zumaia arteko flyscha garbitu dute auzolanean

Eguzki talde ekologistak deituta, 200 herritar baino gehiago aritu ziren azaroaren 10ean Deba eta Zumaia arteko flyscha auzolanean garbitzen. Hamaika hondakin bildu zituzten, gehienak plastikoa. Guztira 2.500 kilo inguru jaso zituzten.

Oier Bartolome surflari debarrak bideo bat egin zuen mare arteko gune horretan aste batzuk lehenago, eta berez babestua den biotopoa plastikoz beteta zegoela erakutsi zuen. Bideo hura azkar asko zabaldu zen interneten. Egun gutxitara, flyschan ageri zen hondakin pilaketa eta plastiko isuria “saihesteko eta horri konponbidea emateko” ikerketa abiatu zuen Manuel Lezertua arartekoak, ofiziosko espedientea abiatzeko erabakia- ren berri emanez. Eta, bere aldetik, Eguzki taldeak ingurunea garbitzeko auzolana proposatu zuen gero.

Eguzkiren esanetan, zonaldea garbitzen aritu zirenek “ederki asko erakutsi dute naturarekiko eta herrigintzarekiko kontzientzia eta konpromisoa badituztela”. “Baina ez gara inozoak, eta badakigu ekimen honen bidez eta egin daitezkeen antzeko beste batzuen bidez soilik ezin zaiela aurre egin plastikoak sortzen ari diren arazoei. Izan ere, 10 milioi tona plastiko iristen da urtero itsasora”.

Araza globala izanik, irtenbidea ere globala behar duela uste du Eguzkik. “Lehenbailehen plastikoen mundu ekoizpena



mugatuz eta birziklatu ezin daitezkeen plastikoa debekatuz. Bitartean, birziklatu daitezkeen plastikoa behar beste bildu behar dira; gaur egun baino gehiago, alegia”.

Administrazioek arazoari “serio heldu bitartean”, herritarrek ere neurriak har ditzaketela uste du taldeak; neurri horien bitartez erakutsitako kontzientzia “akuilu” izango baita agintari-ekin hartu beharreko erabakiak lehenbailehen har ditzaten.

Deba eta Zumaia bitarteko mare arteko gunea tarteka garbitu behar dela uste dute, hondartzak garbitzen diren bezalaxe. “Gune hau Biotopo babestua da lege eta kalifikazio horrek ezin du amu turistiko huts izan. Neurriak behar dira, tartean, garbiketa-neurriak”. Halaber, Gipuzkoako erreka eta ibaiek ere garbiketa behar dutela azaldu dute: “Ezin dute plastikoa itsasora eramateko autopistak izan”.

Adinekoen bizimodua dinamizatzeko proiektua, martxa betean



Eneko Cabello dinamizatzailea (ezkerrean), Arbil elkarteko batzordekideekin. Irudia: Ander Salegi

Urriko lehen asteaz geroztik, Arbil jubilatuen elkartean 55 urtetik gorakoentzako bi tailer berri eskaintzen dira: erlaxazio tailerra, batetik, eta kontzentrazioa, arreta eta memoria hobetzeko entrenamendu tailerra, bestetik. Eneko Cabello Antolin gazteak dinamizatzen du proiektua eta berak eskaintzen ditu ikastaroak. Udalak antolatu eta finantzatzen duen egitasmoaren inguruko informazio pixka bat gehiago eman digu Debako dinamizatzaileak ondoko elkarrizketan.

Zer moduzko harrera izan dute urrian martxan jarritako tailerrek?

Etortzen den jendea gustura sentitzen da eta pozik etortzen da. Hori da guk gehien baloratzen duguna, azken finean, etortzen den jendearen bizi kalitatea hobetzen laguntzea baita gure asmoa.

Noiz arte eskainiko dira tailer horiek?

Printzipioz Gabonak arte, baina litekeena da urtarrilean jarraipena ematea; batetik, uste dugulako hiru hilabete denbora gutxi dela, eta, bestetik, tailerretara etortzen ari den jendeak jarraitu egin nahi duelako.

Oraindik ere badago izena emateko aukerarik? Eta, hala bada, nora jo behar dute interesatuek?

Bai, noski, beti dago denbora edo aukera izena eman eta parte hartzeko. Horretarako, astelehen, asteazken eta ostegunetan Arbil elkarteko bulegora joateko aukera dago, edota telefonoz deitzeko, goizeko 11:00etatik 12:00etara (zenbakia hurrengo da: 943 19 22 15).

Zein da ikastaro hauen erronka edo helburu nagusia?

Erronka nagusia da pertsona helduentzako tailerrak, ekintzak, hitzaldiak eta abar egitea, beste hainbat udalerritan egiten den bezala, beraien bizi kalitatea hobetzeko, aktiboago sentitzeko.

Herri mailan gabeziaren bat sumatu zenuten halako ekimen bat martxan ipintzeko? Nola ikusten duzue Debako edadetuen egoera?

Hori jakinarazi ziguten udaletxetik; zerbait egiteko beharra dagoela, orain arte gauza konkretuak soilik egin izan direlako. Arrazoi horregatik erabaki zen pertsona helduentzako dinamizazio proiektu bat aurrera eramatea. Denborarekin gauza gehiago proposatzea eta egitea da gure helburua, betiere pertsona helduen beharretara egokituz.

Proiektu hau aurrera eramateko elkarlanean ari dira Udala, Gizarte Zerbitzuen departamentua eta jubilatuen elkarte. Lahar elkargoak darama zerbitzuaren dinamizazioa. Eta zu zabilza dinamizatzaile lanetan, ezta?

Hori da, Lahar elkargoak deitu zidan interes honekin. Nire ikasketak kontuan hartuz, proiektu berri bat martxan jartzeko eta dinamizatzaile bezala lan egingeko proposamena egin zidaten.

Zelan murgildu zara proiektu honetan? Ikasketak, lanbidea, bokazioa...

Gutziz bokazionala da aukeratu dudana mundu hau. Orain dela urte asko jakin nuen pertsonekin lan egin nahi nuela eta horretarako ikasi nuen. Lan esperientziari dagokionez, esparru desberdinetan aritu naiz lanean, profil desberdineko pertsonekin.

Zertan datza zehazki Lahar elkargoaren jarduna?

Lahar elkargoa irabazi-asmorik gabeko elkarte da. Esku-hartze psikosozialean aritzen da, esparru desberdinetan.

Aurrera begira jarraipena izango du proiektu honek? Zein da asmoa?

Horixe espero dugu. Gure partetik, gure esku dagoen guztia egiten ari gara. Badakigu lan hauek ez direla beti linealak izaten eta dena oso azkar aldatu daitekeela. Horretaz jabetzen gara, baina jarraitzea espero dugu, noski.

Beste zerbait nabarmendu nahiko zenuke? Zurea da azken hitza...

Proiektu berri hau ezagutzera animatu nahiko nuke jendea, benetan interesgarria da eta.

Hezur-muina behar du Hiart Compañonek

Leuzemia gaixotasuna diagnostikatu diote Hiart Compañon 41 urte bete berri dituen Debako emakumeari (Elgoibarren bizi da gaur egun). "Udan ahulezia sumatu nuen, pisu galera... eta analisi sakon batzuen ondoren, leuzemia dudala jakinarazi didate. Ordutik azaroaren 9ra arte Donostiako Hematologia Zerbitzuan egon naiz. Orain etxean nago, poz-pozik indarra berreskuratzen", azaldu dio *Berriketan*-i.

Kimioterapia tratamendua hasi du, baina berearekin bateragarria den hezur-muina behar du eta emaille egite-

ra animatu ditu herritarrak: "Emaille egiteak bizia ematen digu ni bezala gaudenei. Gaur ni naiz zuen laguntza eskatzen nabilena, baina agian bihar zuen ingurukoren batek behar izango du".

Emaille egiteko interesa dutenek ondorengo telefonoan eskuratu dezakete informazioa: 943 007 000 (Gipuzkoa), 945 006 291 (Araba), 94 403 36 01 (Bizkaia), 900 303 404 (transfusio eta ehunen saila). Internetez www.euskadi.medulaosea.org atarian aurkitu daiteke informazio gehiago.



Eibarko ospitale berriak eskualdeko 75.000 lagun artatuko ditu



Urriaren 22an inauguratu zuen Iñigo Urkullu lehendakariak Eibarko Ospitalea, Jon Darpon Osasun sailburua alboan zuela. Ekitaldian, eskualdeko beste herrietako alkateak eta udal ordezkariak ere izan ziren; herritarrentzako atea aste bate berandua go zabaldu zituzten, hala ere.

Eibarko Ospitaleak eskualdeko 75.000 laguni eskainiko die zerbitzua. Lehen Mailako Arreta (familia-medikuntza eta pediatria), Osasun Mentala, erresonantzia magnetikoko talde bat izango duen Erradiodiagnostikorako Zerbitzua eta Errehabilitazio zerbitzua eskainiko dituzte. Kanpo kontsultako zerbitzuak ere izango dira (8 espezialitaterenak). Azkenik, 20-24 oheko hiru ospitaleratze-unitate izango ditu, bi solairutan banatuta.

Esker oneko omenaldia Debabarrena eta Debagoienako odol-emallei



Urriaren 27an Debabarrena eta Debagoienako odol-emallei errekonozimendua egiteko ekitaldia egin zuten Gipuzkoako Odol Emalleen elkartekoek Eibarren. 25, 50 eta 60 aldiz odola eman duten boluntarioek diploma eta oroigarria jaso zituzten. Debako bederatzi herritar daude omenduen artean: Federico Martinez, Matilde Soto, Aitor Zinkunegi eta Beatriz Zulaika (25 emanaldirekin); Jose Luis Uranga eta Pedro Aprea (50 emanaldirekin); eta Belen Larrañaga, Maria Naranjo eta Arantza Iriondo (60 emanaldirekin).

AZAROAK 23-ABENDUAK 3

-Euskaraldia. 11 egun euskaraz.

AZAROAK 23, OSTIRALA

-18:30. **Beldur Barik** lehiaketaren sari banaketa, Agirre jauregian (Azaroaren 25aren bueltan).

-19:30. **Santa Zezilia** bezpera ospatzeko kalejira: musika banda, Aitzuri abesbatza, txistulariak...

-22:00. **Film laburren emanaldia** Kultur Elkartearen (Azaroaren 25aren bueltan antolatutako ekimena).

AZAROAK 24, LARUNBATA

-Paleo-koben mendi martxa (Debabarreneko Historiaurreko I. Jardunaldien baitan).

-10:30. **Mahai-ingurua**, Kulturaren: "Gazteak errepresioaren jomugan", Gazte Asanbladaren eskutik.

-**Kolore Anitz Eguna**. Goiz partean jolasak, gero bazkaria eta poteo musikatua... (ikus 4. orrialdea)

-12:30. Santa Zezilia **kontzertua**: Debako Musika Banda, elizako klaustroan.

-22:30. **Kontzertuak, Debako Gaztetxean**: Negudak, Modus Operandi eta Debrass Band.

AZAROAK 25, IGANDEA

-8:30. **Mendi irteera**, Burdin Kurutz M.T. eta Luzarok antolatuta. Aralar (egun osokoa).

-13:00. **Mobilizazioa** Foruen plazan: Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna.

-16:30. **Zine emanaldiak** Kultur Elkartearen (Debabarreneko Historiaurreko Jardunaldien baitan).

-**Ipuin kontaketak**, Agirre jauregian. 17:00etan: 3-7 urte bitartekoentzat; 18:00etan, 7-12 urtekoentzat (Azaroaren 25aren bueltan).

-19:00. "Debabarreneko lehen biztanleak" erakusketara bisita gidatua eta "Sua" tailerra. (Debabarreneko Historiaurreko Jardunaldien baitan).

AZAROAK 26, ASTELEHENA

-18:00. **Olentzero eta Mari Domingiren etorrera** prestatzeko batzar irekia, Zuhatzaren bulegoan.

AZAROAK 28, ASTEAZKENA

-19:00. **Irakurketa Kluba**, liburutegian. "Del color de la leche" eleberria izango dute hizpide.

AZAROAK 29, OSTEGUNA

-16:30. **Genero indarkeriaren inguruko hitzaldia**, Arbil jubilatuen elkartearen.

AZAROAK 30, OSTIRALA

-19:00. **Kontzertua**: musika klasikoa (gitarra eta mandolina), Agirre jauregiko ispiluen gelan.

-19:00. **Jardunaldia**: "Pinuaren gaitza eta basogintza", Itziarko Burugorri.

ABENDUAK 3, ASTELEHENA

-Euskararen Nazioarteko Eguna.

ABENDUAK 8, LARUNBATA

-10:00. **Bisita gidatua**: Flysch beltza. Informazio gehiagorako: www.deba.eus.

ABENDUAK 14, OSTIRALA

-22:00. **Kontzertu berezia**: "Bas(h)loan", Beñat Achiary eta Joseba Irazoki. Itziarko Burugorri.

ABENDUAK 15, LARUNBATA

-10:30. **Bisita gidatua**: Lastur familian. Informazio gehiagorako: www.deba.eus.

ABENDUAK 16, IGANDEA

-**Ipuin kontaketak**, Agirre jauregiko ispiluen gelan. 17:00etan: Haur Hezkuntzakoentzat/ 18:00etan: Lehen Hezkuntzakoentzat.

XIII. Tene Mujika Beka

-Abian jarraitzen du Tene Mujika beka. Debako Udalak egin du deialdia, Elkar argitaletxearen laguntzarekin, Euskal Herriko historia hurbilaren ezagutza zabaldu eta gure literatura aberasteko helburuarekin. Lanak abenduaren 10a baino lehen artxi-boba@deba.eus helbidera bidali beharko dira. Informazio gehiagorako: www.deba.eus.

Animadeba Gorina Lehiaketa

-Gortina lehiaketaren IX. edizioa antolatu du Debako Udalak eta lan saritua Animadeba 2019 animazio zinema jaialdia iragartzeko erabiliko da. Aurtengo lehiaketa animazio ikasleei zuzenduta dago eta partaideek lanak abenduaren 17a baino lehen aurkeztu beharko dituzte. Informazio gehiagorako: www.deba.eus eta www.animadeba.com.

Ikastaroak KZgunean

-KZguneak goizeko ordutegia izango du azaroan (9:00-13:00) eta arratsaldez arituko da abenduan (16:00-20:00). Hainbat ikastaro eskainiko dira: oinarriko interneta, programazio eta garapena, sare sozialak 2.0... Ikastaro horiez gain, urruneko formazioa ere eskaintzen du KZguneak. Informazio gehiagorako: 943 02 36 29 edo www.kzguna.eus.

ZAINTZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara



Zalduegi: **abenduak 7, 8, 9, 17, 18, 19, 20.**

Burgoa Zuazo: **azaroak 23, 24, 25. abenduak 3, 4, 5, 6.**

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201

BURGOA ZUAZO: 667 338 890

Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: abenduak 8 eta 15

BURGOA ZUAZO: azaroak 24 / abenduak 1

9:30 - 13:00

Taxi Alain Deba

LIZ.-ZK.: 3

Wi Fi

www.alain.taxideba.eus

636 135 008

alain@taxideba.eus

ZERBITZUAK

- ▶ Partikularrentzako zerbitzuak egunean 24 orduz
- ▶ Enpresentzako zerbitzuak egunean 24 orduz
- ▶ Aireportuetara joan-etorriak
- ▶ Ekitaldietarako luxuzko zerbitzua

EZAUGARRIAK

- ▶ Larruzko eserleku berogarriak
- ▶ wifi-konexioa
- ▶ Android eta iOS gailuentzako kargagailuak



Argazkilaria
Ander Salegi

(argazki erreportaiaik, photoshop-eko erretakeak...)

Email: andersalegi@gmail.com

Tlf: 685 703 843



MARJE CASTRO IRIBARREN

- Masaje terapeutikoak
- Kiroletako masajeak
- Masaje lasaigarriak
- Manipulazio txinatarra

Masajista

25 URTEKO ESPERIENTZIA

Tel.: 677 557 615

DEBA

Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasak
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206
Tel. faxa: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com

RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA

Hondartza kalea, 3-4 behea - 31 P.K.
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 192 249
Mug.: 618 214 282

sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

atari

etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURAK, ABOKATUA
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA
Tel: 943192263
www.atarideba.com

Lizaso
Autozerbitzua

Lersundi kalea, 21
Tifnoa: 943 19 27 29



Jari zure publizitatea
Berriketan aldizkarian!

Zuhatzta

943 191 383
berriketan@zuhatzta.com




ALBIZU
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

IGARZA
TABERNA

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197



urlo

SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

Nº. 379

Higiezin zerbitzuak
Aholkularitza
Higiezin agentzia
Komunitateen administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo
Apartado 3
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlosi.net



MAXI BAR

Lersundi, 28
Tel.: 943 191 206
Deba (Gipuzkoa)



JOXEAN GALDONA AIZPURUA

HORTZ-SENDAGILEA
Odontologia orokorra,
kirurgiak eta implanteak

Hondartza Kalea, 20 - behea
Tel.: 943 192 819
20820 Deba

ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFINAS Y EXPOSICION:
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)

K21
KALITATEA
Empresa Registrada Nº 21/05/049
NIVEL 2



Uzuri
optika audio

www.uzurioptika.com

ZURE ENTZUMENA
ZAITZEN



Ostolaza, 7
20820 DEBA
Tel.: 943192192

RPS: 183/12



LABUR ZUHATZA MINTZALAGUNA

IZEN-EMATEA:

<https://labur.eus/Zuhatza>
koordinatzailea@zuhatza.com

943 191 383/632 043 322

*Mintzalagun taldeak martxan ditugu
Animatu eta parte hartu zuk ere!*

Ordu-tegiak:

Asteartea: 17:45-18:45
Asteazkena: 16:30-17:30
Ostirala: 11:00-12:00

Antolatzaileak



Babesleak



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



KULTURA SALA
Hizkuntza Publikoaren Gaiturazordeta



DEBAKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE DEBA